HIRIGINTZA I (3. maila)

2009-2010 ikasturteko 2. lauhilekoko 5. ariketa

PARTZELAZIO BERRIAREN PROPOSAMENA

Donostiako **AL-24 Auditz-Akular** sektorerako bide-sare eskema berria proiektatu eta gero, antolakuntzaren partzelazioa zehaztuko da, funtzio ezberdinak adieraziz. Horretarako, plano bat emango da, taldeka, din A-1 tamainakoa.

Orientabide gisa, indarrean dagoen Plan Partzialeko adierazpen mota berdina erabil daiteke (E agiriko 1.1. planoa, Zonifikazio Xehekatua adierazten duena). Sektorearen muga ondo zehaztuta erakutsiko da. Kontuan hartuko da antolakuntza berriak onetsita dagoen Plan Partzialak aurreikusten dituen hirigintza-parametro berdinak (eraikigarritasun berdina) edukiko dituela. Oraindik ez da eraikuntzaren antolakuntza adieraziko (ez da eraikinik agertu behar).

Planoaren eskala talde bakoitzak finkatuko du. Paperean (din A-1 formatuan, tolestu gabe; ordenagailuz egiten bada, A-3 formatuan inprimitu daiteke, baldin eta CD-an din A-1 formatuan badago) zein CD-an (.pdf edo .jpg formatuan) emango da, **apirilaren 27**ko 14:30ak baino lehenago.

Gasteizen, 2010eko apirilaren 12an.

Irakaslea: Unai Fdz. de Betoño